

2023.ko ekainaren 10 eta 11

Lagun agurgarriak:

Gure kanpainaren ardatza, ekainean, gure boluntarioei errekonozimendua ematea izango da, elkartasun-eredu baitira, eta agerian uzten baitute gure kristau komunitatean lehentasunezkoak direla sufritzen duten pertsonak.

Boluntarioen konpromisoaren bidez, egia bihurtzen da kanpainaren kartel horizontaleko begirada eta irribarreek adierazten dutena: **“Lotura, elkartasuna eta senidetasuna dauden lekuan iraungo du bizitzak” (FT87)**

Irudi horri arretaz begiratzen badiogu minutu batez, ohartuko gara begirada horien benetakotasunaz, senidetasunaren balioaz, doakotasunaz, maitasunean oinarrituta komunitatea eraikitzen duten lotura esanguratsuak izateko beharraz. Halaber, harreman horiek eraiki beharreko horizontaltasun anaikorraren garrantziaz jabetuko gara.

Horregatik, gaur, gure begiratzeko eraz kontziente izateko helburua ezartzen diogu geure buruari.

- Zabal ditzagun begiak, esker onez antzemateko Jainkoak bizitzan duen presentzia, baita gure elkartea sortzen duten pertsona guztiena ere.
- Utz diezaiegun besteei guri begiratzen, eta garden erakuts ditzagun zintzotasuna, zentzua eta poza.
- Ikas dezagun Jesusen begiratzeko moduz. Izan ere, hark, errealitatean sakonduz, baliotsua dena aurkitzen du, eta agerian uzten ditu bidegabekeria eta zentzugabekeria.
- Zuzendu dezagun begirada gauza garrantzitsuetara, pertsonen bizitzara, benetan zentzua duten gauzetara.

Hori bezain erraza da. Geure buruari aukera emango diogu berriro behatzeko, patxadaz, maitasunez, zaintzeko eta Jainkoari –beti gure loaren zaindari den Jainkoari– gu zaintzen uzteko modurik onenean sakonduz.

Kanpaina honek balio dezala eskerrak emateko boluntario guztiei, beren onena (denbora, ezagutzak, bizitzaren eskarmentua) pozik ematen duten horiei, lekukotza ekarriz eta egunez egun mundu hobearen eraikitzen ahaleginduz. Eskerrik asko, bihotzez.

Jaso ezazu besarkada bero bat.



Carlos Burgos
Zuzendaria



10 y 11 de junio de 2023

Estimadas amigas, estimados amigos,

En este mes de junio centramos nuestra campaña en el reconocimiento a nuestro voluntariado, ejemplo de solidaridad y evidencia de la opción preferente de nuestra comunidad cristiana con las personas que sufren.

A través del compromiso voluntario se hace verdad lo que expresan las miradas y sonrisas que se plasman en el cartel horizontal de campaña: **“La vida subsiste donde hay vínculo, comunión y fraternidad” (FT87)**

Si dedicamos un minuto a observar con delicadeza esa imagen, nos daremos cuenta de la autenticidad de esas miradas, del valor de la fraternidad, de la gratuidad, de la necesidad de vínculos significativos, que basados en el amor construyen comunidad. También, de la importancia de la horizontalidad fraterna en la que esas relaciones deben de ser construidas.

Por eso, hoy, nos proponemos ser conscientes de nuestra manera de mirar,

- Abramos los ojos para percibir con agradecimiento la presencia de Dios en la vida y la de todas las personas que crean nuestra comunidad.
- Dejémonos mirar, procurando transparentar franqueza, sentido y alegría.
- Aprendamos de la forma de mirar de Jesús, que, profundizando en la realidad, descubre lo valioso y desvela la injusticia y el sinsentido.
- Enfoquemos la mirada en lo importante, en la vida de las personas, en las cosas con verdadero sentido.

Así de sencillo, vamos a darnos la oportunidad de observar de nuevo, detenidamente, con cariño, ahondando en la mejor forma de cuidar y dejarnos cuidar por el mismo Dios que siempre vela y acompaña nuestros sueños.

Sirva esta campaña para dar las gracias a todas las personas voluntarias que dan, con alegría, lo mejor de sí mismas (su tiempo, sus conocimientos, su experiencia de la vida) dándonos testimonio y tratando día tras día de construir un mundo mejor. Gracias de corazón.

Recibe un cálido abrazo.



Carlos Bargos
Director

